

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAIKINETAKO ENERGIA-EFIZIENTZIAREKIN LOTUTAKO PROGRAMA INFORMATIKOAK.	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF0571		
Lanbide-arloa	ENERGIA ETA URA		
Lanbide-eremua	Energia-efizientzia		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eraikinen energia-eraginkortasuna	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Eraikinen energia-ziurtapena	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Etxegintza eta eraikinetako energia-efizientzia.	Iraupena	90
	Eraikinen energia-kalifikazioa.	Iraupena	60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Trebakuntza-atal hau bat dator UC1195_3: ERAIKINEN ENERGIA-ZIURTAPENENKO PROZESUAN LAGUNTZEA gaitasun-ataleko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin, eraikinen energia-kalifikazioa programa informatikoen bitartez egiteari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Programa informatiko ofizial edo homologatuak erabiltzea eraikinen energia-eskariaren muga kalkulatzeko.

EI1.1 Energia-eskariaren muga kalkulatzeko erabiltzen diren programa informatikoen funtzioak eta ezaugarri orokorrak definitzea.

EI1.2 Energia-eskariaren muga kalkulatzeko erabiltzen diren programa informatikoen funtzionamendurako beharrezkoak diren datuak hautatzea eta sartzea.

EI1.3 Energia-eskariaren muga kalkulatzeko programan dauden erremintak erabiltzea.

EI1.4 Energia-eskariaren muga kalkulatzeko erabiltzen diren programa informatikoen emaitzen dokumentuak lortzea.

A2: Programa informatiko ofizial edo homologatuak erabiltzea eraikinen energia-kalifikazioko prozesuan.

EI2.1 Eraikinen energia-kalifikazioko prozesuan erabiltzen diren programa informatikoen funtzioak eta ezaugarri orokorrak definitzea.

EI2.2 Eraikinen energia-kalifikazioko prozesuan erabiltzen diren programa informatikoen funtzionamendurako beharrezkoak diren datuak hautatzea eta sartzea.

EI2.3 Eraikinen energia-kalifikazioko prozesuan erabiltzen diren programa informatikoetan dauden erremintak erabiltzea.

EI2.4 Eraikinen energia-kalifikazioko prozesuan erabiltzen diren programa informatikoen emaitzen dokumentuak lortzea.

Edukiak

1. Eraikinen energia-simulazioa

- Eraikinetako masaren eta beroaren transferentziaren modelatua:
 - Eraikinetan masa eta beroa transferitzeko prozesuak.
 - Bero-transferentzia kanpoko hormetan eta sabaietan (zenbakizko metodoa).
 - Bero-transferentzia beiretan.
 - Airearen infiltrazioa eta iragazkortasuna.
- Eraikinen portaera dinamikoa:
 - Kanpoko gainazalen ingerada-ezaugarriak.
 - Barneko gainazalen ingerada-ezaugarriak.
 - Barneko bero-iturriak.
 - Energia-balantzea kanpoko eta barneko gainazaletan.
 - Barneko airearen energia-balantzea.
- Eraikineko sistemetarako ekuazio-sistemen motak.
- Energia-simulazioko softwarea:
 - Energia-simulazioko programen egitura.
 - Parametro bereizgarriak.
 - Modelizazio-urratsak.
 - Eraikinen energia-simulazioko programak.
 - Zehaztasuna eraikinen energia-simulazioan.
 - Aplikazio praktikoa.

2. Energia-eskariaren mugaren kalkulua programa informatikoen bitartez.

- Proiektu bat sortzea eta deskribatzea.
- Materialen, produktuen eta eraikuntza-elementuen datu-baseak.

- Eraikinaren definizioa.
- Kalkulua, emaitzak eta egiaztapen-txostena sortzea.
- Aukera orokorraren aplikazio praktikoa.

3. Energia-kalifikazioa programa informatikoen bitartez

- Aplikazioaren mugak.
- Barnean hartutako energia-sistemak.
- Kontsumoa eta emisioak.
- Emaitzak. Etiketa-adierazleak.
- Aukera orokorraren aplikazio praktikoa etxebizitzan eta hirugarren sektoreko txikian.
- Aukera orokorraren aplikazio praktikoa hirugarren sektoreko handian.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0570 gainditua izan behar du: Eraikinen energia-kalifikazioa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eraikinen energia-eraginkortasuna.